

PIRINIOETAKO FAUNA (II)

Sarrioa

Eneko Imaz

GAURKO animalia Piriniarra sarrioa (*Rupicapra pyrenaica*) dugu. Berau bobido bat denez ahuntzekin erlazionatua dago, eta beraz, ahuntz guztiak bezala, erreztasun handiz ibili ohi da toki malkar eta harritsueta.

Baina gainera, bizi deneko ingurunerako moldapen moduan, sarrioaren atzazalen kanpo

ertza oso garatua dago. Ertz hau goma moduko substantzia batez egina dago harri gainean ez irristatzeko. Bestalde apatxen bi erdiak mugikorak dira, sarrioak boluntarioki mugi ditzake, eta beraz, zapaltzen ari den sustratuaren arabera apatx-erdiaren arteko zabalera alda dezake. Tarte hau berez ere nahiko zabal da.



Moldaketa hauek dira zenbaitetan larreetan, bes-tetan elur edo izotzetan eta hurrengoan paretan ia bertikaletan lasai-lasai ibiltzea baimentzen diotenak.

Honetaz gain, sarrioak bihotza handia du, globulu gorrien kopurua altua (altuetarako moldapen moduan) eta neguan ilajea oso ugaria du hotzari aurre egiteko.

Hala ere hain toki zail eta bereziki mendian hain gora bizitzearen arrazoiak ez dira moldapen hauek bakarrik. Horren arrazoi nagusia giza presioa da. Hezur fosilen arabera Bizkaia eta Arabako mendietan bizi izan da, eta orain mende batzu (1165 urtean) Orreaga inguruan buruturiko ehiza-saioen kronikak ere badaude, beraz altuera ertaineko mendietan ere baziren sarrioak. Gehiegizko ehiza-presioaren ondorioz, besteak beste, ugaztun honek goi-mendietan babestu behar izan zuen, eta gaur egun, bertan bizitzera erabat moldatua dago. Dena den, azken urteotan izan duen babesa dela eta sarrio kopurua dexente ugartu da.

Beraz esan bezela, sarrioak ingurune goi-menditarretan bizi da, eta ahal badu ez da bertatik jeisten. Honela, askotan ikus daitezke sarrioak aztarka elurretan belar bila, edo eguraldia oso hotza izan arren haizeak mui-noetan eta toki oso malkartsuetan sortzen dituen elurrik gabeko guneetan bazkatzen. Hala ere, eguraldiak behartuta, baso mugara ere beheratu ohi da babes eta bazka bila. Alpeetan ordea, ohizkoak dira erabat basoan sartuta eta altuera baxuagoetan bizi diran sarrio populazioak. Dena den, Pirinioetan ere badira urtean zehar basoan denbora asko ematen duten taldeak, adibidez, Ordesa aldean, eta Larra-Belagoa-Ezkaurre aldean (azken honetan seguruenik aziendek goi larreetan egiten dioten kompetentziagatik).

Ugalketa

Animalia herbiboro hau taldezalea da. Urtean zehar taldeak eme eta kumeez osatuak daude, eta arrak bakartiak dira. Udazkenean (azaroan zehar) araldiarekin batera ar hauek eme-taldeetara hurbiltzen dira eta ahal bezain eme gehien eskuratzen saiatuko dira. Normalean arra taldea baino goraxea-ego egoten da, ingurua ondo zaindu ahal izateko, eta beste arren bat agertuz gero berehala hasiko zaio segika bertatik bidaltzeko. "Bisitaria" nabarmenki handiago eta indartsuagoa bada bera "jabetuko" da harenaz, baina indarrak parekatuak egonez gero borroka gogorak gerta daitezke. Borroka burua makurtu eta alkar joka egiten dute. Zenbaitetan adarrak trabatu eta tiraka aritzen dira eta beste batzutan adar zorrotz gaketunak direnez zauri larriak egiten diz-



Gaztetxo taldea



Sarrio emea udako ilajeen



Arra, neguko ilaje bereizgarriak



Sarrioak edozein txoko, larre edo harriztatan topa dezakegu

kiote alkarri sabel-aldean. Zauri hauek askotan heriotza dakarte.

Talde-buru den arrak ahal bezain beste eme estaliko ditu. Hauen ernarialdiak 165 egun inguru iraungo du, honela, lehen kumeak maiatza inguruan jaioko direlarik. Hauek 2 kg inguruko pisua dute jaiotzean eta amaren atzatik joateko gai dira. Heldutasunera iristean arrek 25-35 kg ere bisa ditzakete, eta emeak berriz ez dira 30 kg ingururik pasako. Jaiotzean

adarrak ez badute ere, gero 17-20 zentimetroko luzerakoak izango dituzte, arren lodiagok eta gako gehiagokoak direlarik.

Pirinioetako sarrioak, orokorrean, Alpeetakoak baino txikiagoak eta kolorez argiagoak dira. Dena den, neguan, ilajea ugariagoa eta ilunagoa da. Asturias aldeko rebekoa oraindik ere txikiagoa da.

Geheetzearen kontrolak

Sarrioen populazioa gehituz doaz eta horrek, zenbait buruhauste sor ditzake. Gaur egun, babespean egonarren sarrioak ehizatze baimenak urtero ematen diran. Hasiera batean, baimen hauek trofeorako animaliak, hau da ar sano eta ondo garatuak ehizatzeo bakarrik ematen zituzten, baina gaur egun ehiza selektiboa ere egiten da. Ehiza mota honen bidez emeak eta ezaugarri exkaxekoak diran bi sexu-etako animaliak (azken finean aurrerago trofeo txarrak emango dituztenak) botatzen dira eta honela, neurri batean behintzak, naturak harrapakarien bidez egingo lukeen selekzio naturala burutzen da. Kontutan hartu behar da gaur egun sarrioak ia ez duela harrapakari naturalik (otsoa Pirinioetan desagertua dago eta arrano beltzak ahunzko gutxi batzuk bakarrik harrapatzen ditu). Dena den, hil beharreko animalien aukeraketa irizpide zinegetioekin egiten da. Bestalde, Ordesan egoera oso larrian dirauen bukardoari (*Capra pyrenaica*) kompetentzia nabarmena egiten diola ere nahiko argi dagoela dirudi, horrek nola baiteko eskuartzea eskatzen duelarik. □

SARRIOAREN IZEN HERRIKOIAK

Euskaraz:	Sarrioa
Gazteleraz:	Gamuza, rebeco (Picos de Europa), sarrio (Pirinioetan)
Aragoeraz:	Sarrio, ixarso (Benasque), chizardo (Gistain)
Frantsesez:	Isard (Pirinioetan), chamois (Alpeetan)
Bearneraz:	Sarri
Kataluineraz:	Isard
Aran bailaran:	Craba, èrc.

Argazkiak: Eneko Imaz